



DERANDEIN BULETINA

2021eko ekaina

BOLETÍN DERANDEIN

Junio de 2021

Shima Zentroko Ama eta Haurren Zerbitzuaren kalitatea handitzea lortu dugu Kingabwan

2020an zehar, 400 emakumek baino gehiagok segurtasun-baldintza onetan erditu dute Shima Zentroan (Covadongako Ama Birjina Osasun Zentroan). Kingabwa auzoan dago, Kinshasan, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Trabajando por el Corazón de África (TRACAF) tokiko elkartea egindako informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina komunitarioa izan da lorpen horren oinarria.

Zenbait dohaintza-emaileren (hala nola **Administraciones Apodakaren, Kutxa Fundazioaren eta Andoaingo Udalaren**) laguntzarekin garatutako proiektuari esker, zentroak beharrezko ekipo eta materialak eskuratu ditu, eta prestakuntza eskaini die osasun-langileei, batik bat emaginei.

Bigarren hezkuntzako ikasleek genero-berdintasuna eta ingurumenaren zaintza sustatzen dute Kinshasan

Kinshasako (Kongoko Errepublika Demokratikoko) Covadongako Andre Maiaren eskolako (Kepa Azarloza Zentroko) ikasleek ikus-entzunezko materiala prestatzen parte hartu dute. Material hori eskola-eremuan eta komunitatean erabiliko da hezkuntza-ekdu gisa, genero-berdintasunaren eta ingurumenaren zainketaren inguruko jardunbide arduratsuak, balioak eta eskubideak sustatzeko.

Amorebieta-Etxanoko Udalak eta Erandioko Udalak diruz lagundu dute proiektu hau.

Mejorada la calidad del servicio materno-infantil en el Centro Shima en Kingabwa

A lo largo del año 2020 más de 400 mujeres han dado a luz en condiciones seguras en el Centro de Salud Shima (Centro de Salud Nuestra Señora de Covadonga), en el barrio de Kingabwa (Kinshasa, República Democrática del Congo), como resultado de la campaña de información y sensibilización comunitaria realizada por nuestra contraparte local Trabajando por el Corazón de África (TRACAF). Gracias a la colaboración de donantes como **Administraciones Apodaka, Kutxa Fundazioa y el Ayuntamiento de Andoain**, se ha acondicionado debidamente el centro de salud con los equipos y materiales necesarios, y se ha formado al personal sanitario, principalmente matronas.

Alumnado de secundaria promueve la igualdad de género y el cuidado del medio ambiente en Kinshasa

Alumnos y alumnas de la escuela Nuestra Señora de Covadonga-Centro Kepa Azarloza, en Kinshasa, República Democrática del Congo, han participado en la elaboración de material audiovisual que servirá de contenido educativo para promover prácticas responsables, valores y derechos como la igualdad de género y el cuidado del medio ambiente en el ámbito escolar y comunitario.

Este proyecto ha sido subvencionado por el **Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano** y el **Ayuntamiento de Erandio**.



©TRACAF



Kingabwan malnutrizioa desagerrarazteko dieta osasuntsuagoak eta jasangarriagoak eskura izatea

Nutrizio Programa Nazionaleko taldeak Kingabwako (Kinshasako) Covadongako Andre Mariaren eskolan (Kepa Azarloza Zentroan) 250 ikasleko laginaren bidez egindako diagnostikoak agerian utzi du dieta osasungarri eta jasangarriagoak eskura izateko aukera hobetu behar dela, 15 urtetik beherakoen artean malnutrizioa desagerrarazteko.

Azterlan horrek agerian utzi du haurren % 6k gutxiegitasun ponderala duela, eta batez ere 5 urtetik beherako mutikoei eragiten diela, duten adinari dagokiona baino pisu txikiagoa baitute. Halaber, haurren % 12k atzerapena du hazkundean (malnutrizio kronikoa) eta haien garaiera adinari dagokiona baino txikiagoa da. Bestalde, % 15ek gehiegizko pisua du, elikaduraren kalitate txarra dela eta; batez ere neskei eragiten die arazo horrek.

Ikerketak agerian utzi du, halaber, lau etxetatik batek ez duela elikadura-segurtasunik, elikagaien kontsumo-maila eskasa edo mugatua duela, eta kontsumitutako kopurua txikia dela. Hala, haurren % 32k bakarrik gosaltzen du eskolara joan aurretik. Horrek azalduko luke, neurri batean, haurren erdiak inguruak gaixotasunen bat edukitzea diagnostikoa egiteko unean. Horiek, batez ere, prebenitu daitezkeen gaixotasunak dira, eta eskolara joatea galarazten diete.

Egoera horren aurrean, Derandein Fundazioak, gure tokiko kontraparte TRACAFekin lankidetzan, lan egingo dugu proiektu integral bat abiarazteko eskola, familia eta komunitate-esparruan, arazoari aurre egiteko, Kongoko Errepublika Demokratikoak bizi duen testuinguruan, non biztanleriaren desnutrizio-prevalentzia oso handia den.

Oinarrizko zenbait eskubide eta premia asetzenean dihardugu (hezkuntza, elikadura, ura eta osasuna), giza garapen jasangarria sustatzuz behar handieneko taldeetan.

Acceso a dietas más sanas y sostenibles para erradicar la malnutrición en Kingabwa

El diagnóstico realizado por el equipo del Programa Nacional de Nutrición en un muestreo de 250 alumnos y alumnas de la escuela Nuestra Señora de Covadonga-Centro Kepa Azarloza, en Kingabwa, Kinshasa, ha puesto de relieve la necesidad de mejorar el acceso a dietas más sanas y sostenibles para erradicar la malnutrición entre las y los menores de 15 años.

Este estudio señala que un 6% de los niños y las niñas sufre insuficiencia ponderal, afectando principalmente a los niños menores de 5 años, cuyo peso es inferior al que corresponde a su edad. Así mismo, un 12% de las niñas y los niños tiene un retraso en el crecimiento (malnutrición crónica) y su estatura es inferior al que corresponde a su edad. Por otro lado, un 15% tiene sobrepeso dada la mala calidad de la alimentación, que afecta principalmente a las niñas.

Este estudio, señala también que uno de cada cuatro hogares sufre inseguridad alimentaria, con un nivel de consumo de alimentos deficiente o limitado y baja cantidad consumida. Tal es así, que tan solo el 32% de los niños y las niñas desayuna antes de ir a la escuela. Ello explicaría, en parte, que cerca de la mitad de los niños y niñas tenían una enfermedad en el momento de la realización del diagnóstico, principalmente enfermedades prevenibles, lo que provoca la falta de asistencia a la escuela.

Ante esta situación, desde Derandein Fundazioa, en colaboración con nuestra contraparte local TRACAF, trabajaremos en la puesta en marcha de un proyecto integral, de ámbito escolar, familiar y comunitario, que aborde esta problemática, en un contexto como la República Democrática del Congo, con una de las mayores prevalencias de desnutrición entre su población.

Intervenimos en derechos como la educación, la alimentación, el agua y la salud, promoviendo el desarrollo humano sostenible de los colectivos más vulnerables.

Nkawasiro eta Atapar (Kenya) komunitateak modu seguruan hornituko dira urez

Ur-baliabide nahikoak eta merkeak eskura izatea oinarrizko giza eskubidea da. Agenda 2030eko seigarren helburuak ur garbia eta saneamendua aurreikusten ditu pertsona guztientzat. Bada, ildo horretan lan egiteak eragin positiboa izan du Nkawasiro eta Atapar Down (Turkana iparraldeko barrutia, Kenia) komunitateen garapenean.

Gure tokiko kontraparteak burtu du proiektua, San Paulo Apostoluaren Misio Komunitateak (MCSPAk). Alde batetik, ur garbia eta segurua eskura izatea erraztu die hango familia askori eta haien abereei, eta, bestetik, lagundu die kalitateko elikagai nahikoak eta merkeak produzitzen. Ondorioz, nabarmen gutxitu dira gaixotasun batzuk, hala nola hazteria edo sarna, konjuntitibisa eta beherakoak, batez ere haurren artean.

Proiektu hau gauzatzeko funtsezkoak izan dira **Barclaysen** finantza-ekarpena eta **AUARA gizarte-enpresaren** laguntza.



Andoainek eta Erreenteriak kalitateko hezkuntzaren eta ingurunearen zaintzaren alde egin dute Kenyan

Proiektu honen helburua da hezkuntzaren errendimendua eta bizi-kalitatea hobetzea Nariokotome komunitatean (Turkana iparraldeko barrutia, Kenia). Zehazki, lehen hezkuntzako San Jose eskolako 340 haurren edo gehiagoren hezkuntza- eta elikadura-baldintzak hobetuko dira. Horretarako, bi irakasle hasi dira lanean hasierako mailetan. Haiek arduratuko dira, gainera, ingurumenaren zaintzari buruzko eskola-curriculum berria ezartzeaz.

San Jose eskolako neska-mutilek oinarrizko nekazaritza-gaitasunen inguruko prestakuntza jasoko dute, eskola-baratzearen bidez, eta beraiek ekoiztutako elikagaiak eskuratu ahal izango dituzte, gainera. Ikaskuntza hori euren gurasoekin partekatuko dute. Hala, aita-amek ere errezeta eta elikadura-teknika berriak eta osasungarriak ikasiko dituzte. Fruta-arbolak ere izango dira eskolan, eta komunitateko beste area batzuetan ere zuhaitzak landatuko dira.

Las comunidades de Nkawasiro y Atapar Down (Kenia) acceden al agua de forma segura

El acceso a recursos hídricos suficientes y asequibles es un derecho humano fundamental que contempla la agenda 2030 en su objetivo número seis: agua limpia y saneamiento para todas las personas. Trabajar en esta línea en las comunidades de Nkawasiro y Atapar Down ha creado un impacto positivo en el desarrollo de estas comunidades situadas en el distrito de Turkana Norte, Kenia.

El proyecto llevado a cabo por nuestra contraparte local, la Comunidad Misionera de San Pablo Apóstol (MCSPA), ha contribuido a mejorar, por un lado, el acceso al agua limpia y segura para muchas familias y sus rebaños y, por otro lado, la producción de alimentos suficientes, de calidad y asequibles. Gracias a ello, enfermedades como la sarna, la conjuntivitis o las diarreas han disminuido de forma considerable, sobre todo entre los niños y las niñas.

Este proyecto ha sido posible gracias a la aportación financiera de **Barclays** y la colaboración de **AUARA Empresa Social**.



Andoain y Erreenteria apoyan el acceso a la educación de calidad y el cuidado del entorno en Kenia

Este proyecto busca mejorar el rendimiento educativo y la calidad de vida en Nariokotome, en el distrito de Turkana Norte, Kenia. En particular, se mejorarán las condiciones educativas y alimentarias de al menos 340 niños y niñas de la Escuela de Primaria San José. Para ello, se han contratado dos maestros para los cursos iniciales que serán además responsables de implementar el nuevo currículo escolar sobre el cuidado del medio ambiente.

Los niños y las niñas de la Escuela San José serán formadas en habilidades agrícolas básicas a través de la huerta escolar, y podrán acceder a nuevos alimentos que serán producidos por ellas mismas. Todo el aprendizaje será compartido con sus padres y madres quienes podrán conocer nuevas recetas y técnicas de alimentación para el cuidado de la salud. La escuela contará además con nuevos árboles frutales, y serán reforestadas otras áreas de la comunidad.



PREMIAZKO LAGUNTZA TIGRAYENTZAT (ETIOPIA)

Tigray eskualdeko (Etiopiako) gatazkaren eraginez, 4,5 milioi lagun gosetearen mende erortzeko zorian daude, eta milaka eta milaka erori dira jadanik: elikagaiak, ura eta botikak behar dituzte. Eman dirua: zure laguntzak bizitzak salbatuko ditu.

Bidali BIZUM bat 01064 zenbakira, egin ekarpen bat ES82 0081 5055 3600 0144 4851 kontuan edo deitu 944939270 zenbakira.

AYUDA URGENTE PARA TIGRAY (ETIOPÍA)

El conflicto que vive la región de Tigray, en Etiopía, sitúa a 4.5 millones de personas a un paso de la hambruna, pero muchas miles han llegado ya. Necesitan alimentos, agua y medicamentos. Colabora, tu ayuda salvará vidas.

Envía BIZUM al 01064, haz un donativo en ES82 0081 5055 3600 0144 4851 o llámanos al 944939270.

LAGUNTZA EMAN NAHI AL DIOZU DERANDEIN FUNDazioari?

Jasotako dohaintza eta laguntza guztia **Etiopian, Kenyan, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Tanzanian** ditugun kontraparteeek egoerak ahulenean dauden pertsonen eta kolektiboen oinarrizko eskubideak (hala nola hezkuntzarako eta osasunerako eskubideak) bermatzeko garatzen dituzten proiektuetara bideratuko dira.

¿QUIERES COLABORAR CON DERANDEIN FUNDazioa?

Todas las donaciones y ayudas recibidas irán destinadas a proyectos que desarrollan nuestras contrapartes locales en **Etiopía, Kenia, República Democrática del Congo y Tanzania** para garantizar derechos básicos como la educación y la salud de las personas y colectivos más desfavorecidos.

**DERANDEIN FUNDazioa VASCOk babesten du
DERANDEIN FUNDazioa está patrocinada por VASCO**

VASCO

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorean xedatutako betez, jakinarazten dizugu pribatasun-politikari jarraikiz zure baimena eman duzula DERANDEIN FUNDAZIOAK zure dato pertsonalak boletin hau igortzeko helburuarekin trata ditzan. Buletin hau jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, baja eman dezakezu. derandein@derandein.org helbidera mezu bat bidaliz, BULETINA BAJA eta zure izena emanez.

En cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento 2016/679 General de Protección de Datos Personales, te informamos que, conforme a la política de privacidad, has prestado tu consentimiento para que DERANDEIN FUNDAZIOA trate tus datos de carácter personal con la finalidad de la remisión del presente boletín. Si no deseas seguir recibiendo este boletín puedes darte de baja en derandein@derandein.org señalando en el asunto BAJA BOLETÍN y tu nombre.



Produktu hau ingurumenaren aldetik zein sozialki arduraz kudeatutako basoetatik dator.
Este producto procede de bosques manejados de forma responsable, tanto ambientalmente como socialmente.